

4. ERANSKINA

IKASTETXEKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ADIERAZLEEN PROPOSAMENA

PROIEKTUAK, PLANAK ETA PRESTAKUNTZA

Ikastetxean burutzen ditugun proiektuak, planak eta prestakuntza-ekintzak hobekuntza-planei lotuta daude.
Irakasleek parte hartzen dute prestakuntza jardueretan.
Ikastetxeak badauka ibilbide trinkoa prestakuntza-plangintzari buruz.
Elkarrekin prestakuntza egiteko uneak kontenplazten dira ordutegiaren planifikazioan.
Proiektuak eta prestakuntza planak zuzendaritzak bultzatu eta erraztu egiten ditu.
Prestakuntzak bere isla du metodologian.
Urteko Planetan hobekuntza planen ekintzek isla dute.
Ikastetxeko dokumentuetan planteatutako helburuak ezagunak dira.
Ikastetxeko dokumentuen egoera: ez dago / eguneratuta dago / hedatuta dago...
<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)• Plan Estrategikoa (Eraldatzen, Kalitatea Hezkuntzan...)• Zuzendaritza-proiektua (aurreko agintaldiko hobekuntza proposamenak -ikuskaritzako azken txostena-)• Antolakuntza eta Jarduera-araudia (AJA)• Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP)• Programazio didaktikoak• Tutoretza/Orientazio Plana• Aniztasunari Erantzuteko Plana<ul style="list-style-type: none">– Kulturartekotasuna Plana– Hizkuntza Indartzeko Plana– Hezkuntza Indartzeko Plana
<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua<ul style="list-style-type: none">– Hizkuntza-normalkuntza– Hizkuntzen Tratamendua Integratua– Esperientzia eleaniztunak Bizikidetzeta Plana• Hezkidetzeta eta Genero-indarkeriari aurre egiteko plana• Ikastetxearen Urteko Plana• Ikastetxearen Urteko Memoria<ul style="list-style-type: none">– Komunikazio Plana– Kanpoko komunikazioa• Barne komunikazioa• Harrera Plan• Irakurketa Plana• Prestakuntza Plana• Digitalizazio Plana

METODOLOGIAK ETA IRAKAS-MATERIALAK

Erabilitako metodologiekin ziklo edo etapako helburuak betetzen ditugu.
Metodologia berritzaileak garatzen ditugu.
Ikastetxean ildo metodologikoak adostuta dauzkagu.
Teknologia berriak erabiltzen ditugu baliabide didaktiko gisa.
Konpetentziak garatzen ditugu.
Baloreak lantzen ditugu.

ANIZTASUNAREN ERANTZUNA

Ikasleak taldekatzeko irizpideek kontuan hartzen dute aniztasunaren erantzuna.
Errendimendu apaleko ikasleei eta errepikatzailaiei jarraipena egin eta hezkuntza-erantzuna ematen zaie: laguntza eta errefortzurako neurriak.
Aniztasuna aberastasuna kualitatetzat hartzen dugu.
Ikasle etorkinen eskolatzeta laguntzeko prozedurak eta tresnak ditugu.
IDU/DUA oinarritzat hartuta bakoitzak ahal duen heinean lan egiteko aukerak eskaintzen zaizkie ikasleei.
Irakasle guztiok inplikatzeko gara.
Profesional guztien arteko koordinazio egokia dugu.

IKASLEEN JARRAIPENA, BANAN-BANAKAKO ARRETA, ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

Banan-banakako arreta egiten diegu ikasleei.
Ikasleei buruzko informazio-bilketa sistematizatuta egiten dugu arazoak goiz antzemateko eta konponbidea goiz aurkitzeko.
Familiekiko harreman estua eta sistematikoa daukagu.
Tutoretza plana burutzen dugu irakasle aholkulari edo orientatzailearekin elkarlan estuan.
Ikasleen jarraipen zehatza eta sistematizatua egiten dugu.

IKASLEEN EBALUAZIOA

Gure ustez, ebaluazio prozesuak garrantzitsuak dira irakas-ikas prozesuan.
Ebaluazio prozesuetako helbururik inportanteenetariko bat da ikasleen errendimendua hobetzea.
Gutxieneko mailak argi finkatuta ditugu eta denon artean adostuak.
Gutxieneko mailak eta ebaluaziorako irizpideak familiei eta ikasleei jakinarazten dizkiegu.
Bai kanpoko ebaluazioetatik, baita irakasmilen edo etapen hasieran egiten ditugunetatik, irizpideak ateratzen ditugu irakas-praktika hobetzeko.
Ikaslea partaide aktiboa da bere prozesuan eta bere ebaluazioan.

DENBORAREN KUDEAKETA

Denboraren kudeaketa egokia dugu (puntualtasuna, ordutegia betetzea...)
Lektiboa ez den denbora erabiltzen dugu alderdi akademikoak, kulturalak eta kirolak modu paralelo eta ludikoan lantzeko.
Saioen denboralizazioaren banaketa egokia egiten dugu.

KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDU EREDUAK

Gure ikastetxean ardurak denen artean banatzen dira.
Erabakiak hartzerakoan irakasleen iritzia kontuan hartzen dira.
Daukagun antolamendu-ereduak ikastetxearen funtzionamendua eta koordinazioa errazten ditu.
Gure ikastetxean irakasleei arreta, babesa eta laguntza ematen zaie.
Daukagun kalitatea kudeatzeko sistemak ikastetxearen funtzionamenduari laguntzen dio (edo kudeaketarako sistema bat ezartzen planteatuko dugu).

KOORDINAZIOA

Gure koordinazioa egokia eta eraginkorra da.
Barne koordinazioak ikastetxearen esparru guztiak barne hartzen ditu.
Behar bezalako inportantzia ematen diogu kanpoko koordinazioari (beste ikastetxe batzuekin edota giza-osasun zerbitzuekin).
Koordinazio lanak egoki planifikatzen ditugu (egutegiak, helburuak, baliabide telematikoak...).
IKT tresnak ezarri ditugu koordinazioa hobetzeko.

LIDERGOA ETA ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaritzaren lidergoa ezinbestekotzat jotzen dugu (orokorrean eta bereziki prestakuntza eta berriztatze prozesuetan).
Zuzendaritza taldea egonkorra da, helburu zehatzak eta espektatiba altuak ditu irakasleekiko eta ikasleekiko.
Irakasleen egonkortasunak gure estilo pedagogikoa definitzen laguntzen du.
Irakasle berriak heltzen direnean jarraitutasuna eta kohesioa bermatzen ditugu.

INPLIKAZIOA IKASTETXEAN ETA PERTENENTZIA-SENTIMENDUA

Irakasleok lanean dugun jarrera, inplikazio, eginbide eta ardura somatzen da.

Ikastetxearekiko pertenezia-sentimendu sendoa dugu

Familiak inplikaturik daude eta ikasleak harro sentitzen dira eskolarekin.

IRAKASLEEN, IKASTETXEAREN, PROGRAMEN ETA JARDUEREN EBAL ETA EBAL DIAGNOSTIK. ERABILERA

Ebaluazio kultura sendoa dugu eta prozesuak eta emaitzak hobetzera bideratuta dago.

Ebaluazio Diagnostikoa positibotzat jotzen dugu.

Ebaluazioko emaitzak erabiltzen ditugu hauek egiteko: hobekuntza-plan fokalizatuak garatzeko, banako arreta gehitzeko, konpetentzietan oinarritutako lana egiteko, koordinazioa eta gure irakas-praktika hobetzeko.

GIROA ETA ELKARBIZITZA

Ikastetxean eskola giroa positiboa da.

Daukagun ala diseinatzen ari garen elkarbizitza planak laguntzen digu giroa hobetzeko.

Ekintza zehatzak burutzen ditugu ikastetxeko giroa hobetzeko.

Jarduketarako protokoloak argiak, eraginkorrak eta adostuak dira.

Gatazkei irtenbideak ematerakoan neurri hezitzaileetan oinarritzen gara.

IRUDIA INSTALAZIOAK BALIABIDEAK

Gure ustez, ikastetxeko irudia ona da: ingurunearekiko lotura, antolamendua, instalazioak...

FAMILIA, KOMUNITATEA ETA KAPITAL SOZIALA

Ikasleen familiak inplikatzeko dira ikastetxearen dinamikan.

Ikastetxeak inguruko erakundeekin dituen harremanak egokiak dira.

Familiak ikastetxe barruan gauzatzen duten jarduerak pedagogikoari dagokionez euren presentzia altua da.

Familiak ikastetxe barruan jasotzen duten prestakuntzari dagokionez euren presentzia altua da.

- [Eskolaren eraginkortasuna Euskadiko ikastetxeetan. Behin betiko txostena \(2011-2015\)](#) 2015eko abendua ISEI-IVEI - EHU/UPV
- [Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak](#) 1. fasea (2012. urtea) ISEI-IVEI - EHU/UPV
- [Hezkuntza bikaintasunerantz](#) 2016ko otsaila ISEI-IVEI